


EUSKADIKO ORKESTRA

26 27





Falla
Debussy
Stravinsky



24 AZAROA
NOVIEMBRE

19:30

Pamplona / Iruña
BALUARTE

euskadikoorkestra.eus

Euskо Jaurlaritzako herri-baltzua
Sociedad pública del Gobierno Vasco

EUSKADIKO ORKESTRA 26 27

KONTZERTINOA
CONCERTINO
Xabier de Felipe

I BIOLINAK / VIOLINES I
Irene Echeveste (4)
José Ignacio Aizpiri
Inmaculada Aramburo
David Carmona
Marie Gaillard
Alexandre Kozouline
Óscar López
Gemma Monton
Larraitz Oiartzabal
Ortzi Oihartzabal
Itziar Prieto
Maialen Rezabal
Cristina Vértiz

II BIOLINAK / VIOLINES II
Raquel Cortinas (2)
Xabier Gil (2)
Mikel Ibañez (4)
Maddi Arana
Marie Héloïse Arbus
Amaia Asurmendi
Nathalie Dabadie
Virgile Demillac
Ludwik Hamela
Anne-Marie Harmat
Antoni Kosc
Ricardo Ruiz
Igor Torre

BIOLAK / VIOLAS
Delphine Dupuy (2)
Pawel Krymer (2)
Maite Abasolo (4)
Esther Alba
Pascal Arnaud
Natacha Dupuy-Scordamaglia
Justyna Janiak-Krymer
Arkaitz Martínez
Monika Mazur
Sergio Montero
Yann Seyrac

BIOLONTXELOAK
VIOLONCHELOS
Juan Ignacio Emme (2)
Gabriel Mesado (2)
Flore Lefevre (4)
Karmele Castillo
Natalia Díaz
Elena Gómez
Misael Lacasta (5)
Jon Larraz
Beatriz Linares
Pascale Michaud

KONTRABAXUAK
CONTRABAJOS
Arkadiusz Maciejski (2)
Paloma Torrado (2)
Marc Sirera (4)
Mehmet Sönmez
Pierre Torrent
Guangyao Zhao

FLAUTAK / FLAUTAS
Hélène Billard-Alirol (2)
Bruno Claverie (2)
Ander Erburu
Oihana Kontxeso

OBOEAK / OBOES
Óscar Diago (2)
Javier Lecumberri (2)
Carla Aguilar
Pascal Laffont
Hervé Michaud

KLARINETEAK
CLARINETES
Luis Cámara (2)
Juan Andrés Carmona (2)
Stéphane Langlois
Sara Zufiaurre

FAGOTAK / FAGOTES
François Proud (2)
Yuan Dai
Anne Charlotte Lacroix
Patricia Pazos (5)

TRONPAK / **TROMPAS**
Marcos Cruz Pardeiro (2)
Adrián García Carballo (2)
Álvaro Parrón (3) (5)
Jean-Luc Casteret
Xabier Sarasa
Marianne Tauzin

TRONPETAK / TROMPETAS
Alberto Romero (2)
Jesús Castillo
Miguel Echepare

TRONBOIAK / TROMBONES
Arnaud Mandoche (2)
Christophe Sánchez (2)
Sergio Manteiga
Daniel Ruibal

TUBA
Oscar Abella (2)

TINBALAK ETA PERKUSIOA
TIMBALES Y PERCUSIÓN
Anthony Lafargue (2)
Héctor Marqués (2)
Igor Arostegi (3)
Juan Luis García

HARPA / ARPA
Iván Bragado (2)

(1) **Kontzertinoaren laguntzailea** / Ayuda de concertino
(2) **Bakarlaria** / Solista
(3) **Bakarlari-laguntzailea** / Ayuda de solista
(4) **Lehen tuttia** / Primer tutti
(5) **Aldi baterako kontratazioa** / Contratación temporal

Falla Debussy Stravinsky

I



Lucas **Macías**
Zuzendaria / *Director*

ABESTU EUSKADIKO ORKESTRAREKIN
[12'] *(+Info: págs. 8-11 or.)*

Manuel de FALLA (1876-1946)
El sombrero de tres picos. Suite nº 2 (Tres danzas) [12']
Argitaletxea / Edita: J. & W. Chester, Ltd.

I. The Neighbour's Dance (Seguidillas)
II. The Miller's Dance (Farruca)
III. Final Dance (Jota)

II

Claude DEBUSSY (1862-1918)
La mer [23']
I. De l'aube à midi sur la mer
II. Jeux des vagues
III. Dialogue du vent et de la mer

Igor STRAVINSKY (1882-1971)
L'oiseau de feu (Suite) [23']
(Bertsioa / Versión: 1919)
Argitaletxea / Edita: Schott Music GmbH & Co, Kg

1. Introduction
2. L'Oiseau de feu et sa danse & Variation de l'oiseau de feu
3. Ronde des princesses
4. Danse infernale du roi Kastcheï
5. Berceuse
6. Final

Lankidea Colabora
Sabadell Fundación

Falla Debussy Stravinsky

Paris XX. mendearen hasieran Europako kultur trukearen epizentroa zen. XIX. mendean ere hala izana zen: Chopin, Liszt, Offenbach, Rossini edo gure Arriaga Frantziako hiriburuan finkatu ziren atzerriko konpositore ugarietako batzuk baino ez dira. Prestakuntza zabaltzeko, ibilbide profesionala garatzeko edo joera berriekin harremanetan jartzeko asmoz iritsi ziren Hector Berliozek «hiri elektrikoa» esaten zion hartara. Baina XX. mendearen lehen hamarkadetan bihurtu zen Paris modernismo musikalaren erdigune nagusi, konpositoreen hizkuntzak, estetikak eta bilaketak hondamendiaren atarian zegoen Europaren erritmo bizian eraldatzen ari ziren garai historiko hartan. **Lucas Macias** Sevillako Errege Orkestra Sinfonikoko, Oviedo Filarmoniako eta Granadako Hiriko Orkestrako zuzendari titularrak Euskadiko Orkestra gidatuko du berriro, Denboraldi honetan bigarren aldiz, Parisen bizi izan ziren eta, bakoitzak bere erara, orkestra sinfonikorako idazteko moduan iraultza eragin zuen hiru egileren obrek osatutako triptiko batean.

Baina Parisko modernismoaren alderdiak aztertzen hasi aurretik, **Abestu Euskadiko Orkestrarekin** herri-proiektuaren hirugarren edizioaren emaitzez gozatu ahal izango dugu. Aurten ere, proiektu horri esker, 130 musikazale baino gehiago igo dira agertokira gure orkestrarekin batera, hainbat pasarte ezagun abesteko: **Vives**en ***Doña Francisquita*** zarzuelako ***Coro de románticos***, **Pablo Sorozabal**en ***Hara nun diran***, edo **Verdi**ren ***I Lombardi*** operako ***Martxa*** eta ***«O Signore, dal tetto natio»*** **korua**. Azken hori, bere garaian, Italiako ereserki abertzale bihurtu zen, eta *Va, pensiero* bezain ospetsua izan zen ia.

Suzko txoria, 1910eko ekainaren 25ean Parisen estreinatua, **Igor Stravinski**k 1910etik 1913ra Sergei Diaghileven Ballet Errusiarrentzat idatzi zuen ballet-trilogiako lehen obra izan zen. Haren musika *Petrushka* obrakoa bezain pertsonala ez bada ere, ezta *Udaberriaren sagaratzea* obrakoa bezain iraultzailea ere, lortutako arrakasta handiari esker, Stravinski ospetsu bihurtu zen egun batetik bestera.

Maurice Ravelen arabera, Parisko ikusleek (haien artean Marcel Proust, Paul Morand, Jean Giraudoux eta Paul Claudel zeuden) abangoardiarekin topo egin nahi zuten, eta konpositore errusiar gaztearen sorkuntzak, Alexander Afanasievek bildutako herri-kondaira batean inspiratuak, guztiz bete zituen haien itxaropenak, orkestraren erabilera aparteko eta berritzaileari esker (Rimski-Korsakoven irakaspenetatik eratorria). Hurrengo urteetan, Stravinskik *Suzko txoria* obraren hiru orkestra-suite egin zituen, eta horietan jatorrizko balletaren partiturak eskatzen zuen instrumentu-talde handia optimizatu zuen. Gaur 1919koa entzungo dugu, *Kastxei erregearen Infernuko dantza* bezalako pasarte ezagunak biltzen dituena.

Espainiako eta Frantziako musikaren arteko eragin-trukea bereziki bizia izan zen 1880tik Lehen Mundu Gerrara bitartean. Garai hartan, Espainiako musikari asko Frantziako hiriburura joan ziren, prestakuntza jasotzeko, lan egiteko eta aldameneko herrialdeko lankideekin harreman profesionalak zabaltzeko. Horren ondorioz, bi noranzkoetan gauzatu zen trukea: Espainiako musikariek Frantziako modernismo musikalaren ezaugarri ugari bereganatu zituzten, baina Espainiako musika-tradizioa ere eraman zuten berekin, eta tradizio horrek lilura handia eragin zuen Frantziako zenbait konpositorerengan. Jean-François Heisser pianojole eta Frantziako musikan adituak dioenez, «Debussyren edo Ravelen zenbait sorkuntza ezin dira azaldu Albeniz eta Falla kontuan hartu gabe».

Falla, Parisen egindako egonaldiari esker, espainiar sustraiko musikaren ahalmena berriz aurkitu zuen konpositorea izan zen Frantziako hiriburutik itzuli eta gutxira, 1914an, bere sorkuntzarik berezi eta originalenetako bat konposatu zuen, *El amor brujo*, eta

«ijito-giroko» obra hura 1915eko apirilean Madrilen arrakasta handirik gabe estreinatu eta bi hilabetera, Maria Lejarragak, haren libretistak, lankidetza berri bat proposatu zion, «baikorra eta alaia, lur-, ogi- eta kamamila-zaporekoa... dirutza ikaragarria emango duena». Fallak ***Hiru puntako kapela*** jarri zuen mahai gainean, Pedro Antonio de Alarconen eleberria, herri-ondarean errotutako erromantze pikaresko bat kutsu moralizatzailea emanez lantzen zuena. Obra 1917ko apirilaren 7an estreinatu zen Eslava antzokian, jatorrizko pantomima-forman, eta arrakasta itzela izan zuen ikusleen eta kritikaren artean. Kritikak aho batez goraipatu zuen Fallak «nahasezina den espainiar giroa» irudikatzeko erakutsitako intuizioa. Fallak Iberiar penintsulako hainbat dantzaren erritmo- eta harmonia-ereduak jasoz lortu zuen hori, jotatik eta farrucatik hasi eta fandangora edo seguidilletara. Material horrekin, berak «erritmoaren eta sonoritatearen bidez sentimenduak, izakiak eta baita lekuak ere gogora ekartzeko arte magiko» gisa definitzen zuena gauzatu zuen.

Diaghilevek 1916an ezagutu zuen Fallaren proiektua, Ballet Errusiarrak Espainian egon zirenean, eta Cadizko konpositorea konbentzitu zuen pantomima ballet bihurtzeko. Ballet hori 1919ko uztailean taularatu zen Londresko mairu estiloko Alhambra antzokian, Leonide Massineren koreografiarekin eta Pablo Picassoren dekoratu eta figurinekin. Fallak sakon berrikusi zuen partitura, pasarte batzuk kenduz edo gehituz eta jatorrizko bertsioan erabiltzen zuen instrumentu-talde txikia orkestrara egokituz. Espainiako berezko baliabideak ere gehitu zituen, hala nola kriskitinak eta sarrerako «olé» oihuak. Emaitza Espainiako kostunbrismoaren esentzia biltzen duen musika izan zen, baina, paradoxikoki, konposizio-baliabideen sofistikazio bikainari esker lortu zuen hori. Fallak bertsio berri horren bi suite egin zituen. Gaur bigarrena entzungo dugu, ballet osoko hiru pasarterik ezagunenak, beharbada, biltzen dituena: *Bizilagunen dantza*, errotariak dantzatzen duen *Farruca* eta jota-erritmoan idatzitako *Azken dantza.*

Claude Debussyren ***La mer*** obra osatzen duten «hiru zirriborro sinfonikoek», 1903tik 1905era bitartean idatziak, haurtzaroan Cannesen igarotako udaldien oihartzunak eta itsasoari buruzko oroitzapen biziak jasotzen dituzte, «agian pixka bat gehiegizkoak». Hogeita hamar urte geroago, Frantziako konpositorerik eraginkorrena bihurtzeko bidean zela, Debussy itsasoari eskainitako omenaldia idazten hasi zen, itsasotik oso urrun, Borgoinako mendietako herrixka batean, eta Mantxako kanalaren ondoan amaitu zuen, Eastbourne bainuetxe-hirian. Haren erreferenteak, ordea, ez ziren musikalak, piktorikoak eta literarioak baizik: Camille Mauclairren kontakizun bat, Turnerren margolanetako itsas eszenak edo Hokusairen *Kanagawako olatu handia* ospetsua (garai hartako Frantzian oso irudi ezaguna) izan zituen inspirazio-iturrien artean.

Debussyk bere musika pintura inpresionistarekin alderatzeari uko egiten bazion ere, *La mer* haren sorkuntzetako bat da, non inpresionismoaren berezko argi- eta kolore-jokoa nabarmena dela dirudien. Lehen zirriborroak, *Egunsentitik eguerdira arte itsasoan* izenekoak, bikain jasotzen ditu eguzki-izpiak iluntasunari nagusitzen hasten zaizkion orduak. Bigarren koadroan, *Olatuen jokoak* izenekoan, Debussyk erritmoen eta koloreen eraldaketa kaleidoskopikoak egiten ditu, olatuen joan-etorriek etengabe zatikatzen eta eteten duten bilakaera batean. Hirugarren zirriborroak, *Haizearen eta itsasoaren arteko elkarrizketa* izenekoak, bi elementuen, airearen eta uraren, arteko talka eta haien elkarrekintzaren indarkeria ikaragarri baina liluragarria harrapatu nahi ditu.

MIKEL CHAMIZO

Falla Debussy Stravinsky

A comienzos del siglo XX, París era el epicentro de intercambio cultural europeo. Ya lo había sido en el siglo XIX: Chopin, Liszt, Offenbach, Rossini o nuestro Arriaga son solo algunos de los innumerables compositores extranjeros que se establecieron en la capital francesa, buscando ampliar su formación, expandir su carrera o entrar en contacto con las nuevas tendencias en la «ciudad eléctrica», como la llamaba Hector Berlioz. Pero sería en las primeras décadas del siglo XX cuando París se erigió en centro neurálgico del modernismo musical, un momento histórico en el que los lenguajes, las estéticas y las búsquedas de los compositores se transformaban al ritmo frenético de una Europa al borde del colapso. **Lucas Macías**, director titular de la Real Orquesta Sinfónica de Sevilla, Oviedo Filarmonía y de la Orquesta Ciudad de Granada, volverá a liderar a Euskadiko Orkestra, por segunda vez en esta Temporada, en un tríptico de obras de tres autores que vivieron en París y que, cada uno a su manera, revolucionó la forma de escribir para la orquesta sinfónica.

Pero antes de adentrarnos en las facetas del modernismo parisino, podremos disfrutar de los frutos de la tercera edición de **Abestu Euskadiko Orkestrarekin**, el proyecto popular que, un año más, ha facilitado que más de 130 aficionadas/os se suban al escenario junto a nuestra orquesta para cantar fragmentos tan conocidos como el ***Coro de románticos*** de la zarzuela ***Doña Francisquita*** de **Vives**, ***Hara nun diran*** de **Pablo Sorozaba**l o la ***Marcha*** y el **coro *«O Signore, dal tetto natio»*** de I Lombardi de **Verdi**, que en su época se erigió en himno patriótico italiano y fue casi tan famoso como el *Va, pensiero*.

El pájaro de fuego, estrenado en París el 25 de junio de 1910, fue el primero de la trilogía de ballets que **Igor Stravinsky** escribió para los Ballets Rusos de Sergei Diaghilev entre dicho año y 1913, y aunque su música no es tan personal como la de *Petrushka* ni tan revolucionaria como la de *La consagración de la primavera*, su gran éxito hizo de Stravinsky un hombre famoso de la noche a la mañana.

Según Maurice Ravel, la audiencia parisina —entre los que se encontraban Marcel Proust, Paul Morand, Jean Giradoux o Paul Claudel— deseaba un encuentro con la vanguardia, y la creación del joven compositor ruso, inspirada en una leyenda folclórica recogida por Alexander Afanasyev, con su extraordinario y novedoso uso de la orquesta (derivado de las enseñanzas de Rimsky-Korsakov), cumplió de lleno con las expectativas. En años posteriores Stravinsky realizó tres suites orquestales de *El pájaro de fuego*, en las que optimizó la enorme plantilla instrumental que requiere la partitura de ballet original. Hoy escucharemos la que data de 1919, que alberga números tan populares como la *Danza infernal del rey Kastcheï*.

El intercambio de influencias entre la música española y francesa fue especialmente activo entre 1880 y la Primera Guerra Mundial. En ese periodo, muchos músicos españoles acudieron a la capital francesa para formarse, trabajar y ampliar círculos profesionales con sus colegas del país vecino. Esto se materializó en un intercambio que fluyó en ambas direcciones: los músicos españoles adoptaron muchos rasgos del modernismo musical francés, pero también se llevaron con ellos la tradición musical española, que ejerció gran fascinación sobre algunos compositores galos. Según relata el pianista y experto en música francesa Jean-François Heisser, «no se pueden explicar algunas creaciones de Debussy o Ravel sin tener en cuenta a Albéniz y Falla».

Falla fue un compositor que redescubrió el potencial de la música de raíz española gracias a su estancia en París. Al poco de regresar de la capital francesa, en 1914, compuso una de sus creaciones más excepcionales y originales, *El amor brujo*, y dos meses después del discreto estreno madrileño de esta «gitanería», en abril de 1915, María Lejárraga, su libretista, le propuso una nueva colaboración que fuera «optimista

y alegre, que sepa a tierra, a pan y manzanilla... que dé una burrada de dinero». Falla puso sobre la mesa ***El sombrero de tres picos***, la novela de Pedro Antonio de Alarcón que elaboraba, moralizándolo, un picaresco romance que hundía sus raíces en el acervo popular. La obra se estrenó en su forma original de pantomima en el Teatro Eslava, el 7 de abril de 1917, con formidable éxito de público y crítica, que unánimemente alabó la intuición de Falla para caracterizar «un ambiente que es inconfundiblemente español». Falla lo logró recogiendo los tipos rítmicos y armónicos de numerosas danzas de la geografía ibérica, desde la jota y la farruca al fandango o las seguidillas. Con ese material, dio forma a lo que él definía como «un arte mágico de evocación de sentimientos, de seres y aún de lugares por medio del ritmo y la sonoridad».

Diaghilev conoció el proyecto de Falla durante la estancia de los Ballets Rusos en España en 1916 y convenció al gaditano para transformar la pantomima en un ballet que fue llevado al morisco Teatro Alhambra de Londres en julio de 1919, con coreografía de Léonide Massine y decorados/figurines de Pablo Picasso. Falla revisó en profundidad la partitura, quitando o sumando fragmentos y proyectando en la orquesta el pequeño grupo instrumental que empleaba en la versión original. Añadió también recursos típicamente españoles, como las castañuelas y los olés de la introducción. El resultado es una música que quintaesencia el costumbrismo español, pero que lo hace, paradójicamente, gracias a una magistral sofisticación en los recursos compositivos. Falla realizó dos suites de esta nueva versión. Hoy escucharemos la segunda, que recoge los que son, quizá, los tres fragmentos más populares de todo el ballet: la D*anza de los vecino*s, la *Farruca* que baila el molinero y la *Danza final* a ritmo de jota.

Escritos entre 1903 y 1905, los «tres bocetos sinfónicos» que conforman ***La mer*** de **Claude Debussy** recogen los ecos de sus veranos en Cannes cuando era niño, y unos vívidos recuerdos del mar, «quizá algo exagerados». Treinta años más tarde, y camino ya de convertirse en el compositor francés más influyente, Debussy comenzaría a escribir su homenaje al mar muy lejos del líquido elemento, en un pequeño pueblo en las montañas borgoñesas, y lo terminó junto al Canal de la Mancha, en el balneario de Eastbourne. Sus referentes, no obstante, no fueron musicales, sino más bien pictóricos y literarios: un relato de Camille Mauclair, las escenas marítimas de las pinturas de Turner, o la famosa *Gran ola de Kanagawa* de Hokusai — una imagen muy popular en la Francia de la época— se cuentan entre sus fuentes de inspiración.

Aunque Debussy renegaba de la comparación de su música con la pintura impresionista, *La mer* es una de sus creaciones en las que el juego con la luz y el color, propio del impresionismo, parece notorio. El primer esbozo, titulado *Desde el amanecer hasta el mediodía en el mar*, recoge con magnificencia las horas en que los rayos del sol comienzan a imponerse sobre la oscuridad. En el segundo cuadro, *Juegos de olas*, Debussy realiza caleidoscópicas transformaciones de ritmos y colores, en una evolución constantemente fragmentada e interrumpida por el vaivén de las olas. El tercer boceto, *Diálogo del viento y el mar*, trata de atrapar el choque entre ambos elementos, aire y agua, y la sobrecogedora pero fascinante violencia de su interacción.

MIKEL CHAMIZO

HURRENGO KONTZERTU SINFONIKOA / ***PRÓXIMO CONCIERTO SINFÓNICO***

Enigma

Guridi Mozart Elgar

Abendua 4 diciembre / **19:30**

SARRERAK / **ENTRADAS**

10€ < 41€

euskadikoorkestra.eus
baluarte.com
Leihatila - Taquilla

AZKEN ORDU GAZTEA! 10€


Abestu 3
EUSKADIKO ORKESTRA rekin
EUSKADIKO
ORKESTRA

Gaur ***Abestu Euskadiko Orkestrarekin*** proiektuaren hirugarren edizioaren emaitza aurkeztuko dugu. Proiektu honetan abeslari ez profesionalek eszenatoki gainean Euskadiko Orkestrarekin bat egiteko aukera paregabea dute.

Euskadiko Orkestrak 132 ahots hautatu zituen zozketa bidez 2026ko ekainean. Parte hartzeko baldintza bakarrak izan dira gutxieneko musika-prestakuntza izatea, partiturak irakurtzen jakitea eta aurreikusitako 10 entseguetara ahalik eta gehien joatea. Horiek irailaren 16an hasi ziren elkartzen orkestrak Miramonen duen egoitzan, eta astero egin dira bi hilabetez. Entseguetako azken fasean, Easo Abesbatzako 40 kidek egin dute bat herritarren abesbatzarekin laguntza emateko, eta lan hori ere egingo dute eszenatoki gainean kontzertuetan.

Ia 500 pertsonak eman zuten izena ekimen honetan, eta hautaketarako ahots soprano, mezzosoprano, kontralto, tenor eta baxuen nahasketa orekatua eta askotarikoa bilatu da. Parte-hartzaileen erdia emakumeak dira eta beste erdia gizonak. Ahotsen aukeraketan ere belaunaldi ugariren parte-hartzea lortu da: parte-hartzailerik gazteenak 18 urte ditu eta zaharrenak 81. Parte-hartzaileen batez besteko adina 54 urtekoa da, gutxi gorabehera.

Hoy presentamos el resultado de la tercera edición de ***Abestu Euskadiko Orkestrarekin***, un proyecto participativo en el que cantantes no profesionales tienen la oportunidad única de unirse a Euskadiko Orkestra sobre el escenario.

Euskadiko Orkestra seleccionó en junio de 2026 por sorteo a 132 voces, cuyos únicos requisitos de participación han sido tener una mínima formación musical, saber leer partituras y cumplir con la máxima asistencia posible a los 10 ensayos previstos. Estos se iniciaron el pasado 16 de septiembre en la sede de la orquesta en Miramon y se han realizado cada semana durante dos meses. En la última fase de los ensayos, se han unido al coro ciudadano 40 miembros del Coro Easo para dar apoyo, labor que también realizarán en los conciertos sobre el escenario.

En la convocatoria abierta se inscribieron casi 500 personas, y para la elección de las voces se buscó una mezcla equilibrada y variada de voces sopranos, mezzosopranos, contraltos, tenores y bajos. La mitad de participantes son mujeres y la otra mitad hombres. En la selección de voces también se ha conseguido una importante variedad de generaciones: la participante más joven tiene 18 años y el mayor 81. La edad media de las y los participantes es de 54 años, aproximadamente.







EGITARAUA ^ *PROGRAMA*

GIUSEPPE VERDI (1813-1901)

Libretoa: Temistocle Solera Tommaso Grossiren poema epiko batean oinarritua
Libreto: Basado en un poema épico de Tommaso Grossi

I LOMBARDI. "O SIGNORE, DAL TETTO NATIO".
CORO DI CROCIATI E PELLEGRINI [4']

JOSÉ MARÍA IPARRAGUIRRE (1820-1881)

Pablo Sorozabalen bertsio librea. Abesbatza eta orkestrarako moldaketa.
Versión libre de Pablo Sorozabal Arreglo para coro y orquesta

HARA NUN DIRAN. NERE ETORRERA [3']

AMADEO VIVES (1871-1932)

Libretoa / Libreto: ***Federico Romero, Guillermo Fernández-Shaw***

DOÑA FRANCISQUITA. "CORO DE ROMÁNTICOS" [5']

ARTISTAK ^ *ARTISTAS*

HERRITAR-AHOTSAK / VOCES CIUDADANAS

CORO EASO ABESBATZA

GORKA MIRANDA, abesbatzaren zuzendaria / director de coro

MIKEL CAÑADA, proiektuaren zuzendaria / director del proyecto

LUCÍA ARZALLUS, DAVID DE OLIVEIRA, entseguetako laguntzaileak / colaboradoras/es ensayos

Kontzertu hau ARTIS+ proiektuaren parte da, eta proiektu hau Europako Batasunak finantzatzen du %65ean Interreg VI-A Espainia-Frantzia-Andorra (POCTEFA 2021-2027) programaren bidez.

Este concierto se inscribe en el proyecto ARTIS+, que está cofinanciado al 65% por la Unión Europea a través del Programa Interreg VI-A España-Francia-Andorra (POCTEFA 2021-2027).

artis+ Interreg POCTEFA Cofinanciado por la UNIÓN EUROPEA Cofinancé par l'UNION EUROPÉENNE

Abestu 3
EUSKADIKO ORKESTRArekin

AHOTS PARTE-HARTZAILEAK ^ *VOCES PARTICIPANTES*

A ABESBATZA** / CORO A · **BALUARTE

SOPRANOAK

Ainhoa Azcarraga
Lucia Azkue
Flor Bravo
Arantza Butron
Edurne Castro
Jennifer De la Cruz
Edurne García
Edurne Gorostiaga
Estitxu Iriarte
Libe Irizar
Leire Iturbe
Marta Lopez
Irune Martinez
Cliona Amaia Morrissey
Nuria Santamaría
Maria Cristina Sierra

KONTRALTOAK

Irene Aguirrezabala
Aintzane Alberdi
Ilazki Albizuri
Isabel Aldareguia
Maria Altuna
Isabel Etayo
Lurdes Ganzarain
María Gómez
Garbiñe Ibañez
Ainhoa Kortajarena
Txitxu Ruiz
Mercedes Santin
Koro Torres
Onintza Urbieta
Mónica Zuñiga

TENORRAK

Iñaki Agirrezabalaga
Joseba Aizpurua
Markel Balerdi
Juan Antonio Barrenechea
Iosu Cendoya
Javier Corvo
Jorge Guerrero
Jose Antonio Lerchundi
Alex Marrodan
Ignacio Moriones
Iñaki Ostolaza
Iñigo Urrutikoetxea
Jon Villate
Jokin Zubiaur

BAXUAK

Xabier Arruabarrena
Javier Ayerbe
Juan Antonio Barrenechea
Gustavo Charles
Jesús Tomás Gogorcena
Jesús Ibáñez
Fermin Leonet
José Manuel López
Sabino Perez de Ziriza
Alberto Rodriguez
Aitor San Jose
Eduardo Soto
Jose Ramón Telleria

ZORIONAK!





Sabadell Fundación

Cultura y artes
Investigación y educación

www.fundacionbancosabadell.com